

## **ARGITXO**

Harri murri zapero  
bero-bero-bero  
haurrak egin euskaraz  
orain eta gero.

Niri deitzen didate  
Argitxo iratxoa  
eskuan kriseilua  
buruan txanoa.  
Txiki-txikia naiz ni  
mendiko magoa  
leizezuloa utzi  
ta hirira noa.

Ezin nauru ikusi  
ez eta ukitu  
baina Argitxok beti  
zu ikusten zaitu  
eta ni nahi banauzu  
gertutik sentitu  
faborez ta mesedez  
euskaraz mintzatu.

Ni ezkutatzen naiz  
edozein txokotan  
motxilan, poltsikoan  
edota karnetan  
egunez ikastolan  
nabil gehienetan  
ta gauetan sartzen naiz  
haurren ametsetan.

Gauza harrigarriak  
egiten badakit  
magia ikusi nuen  
txiki txikitatik  
opari asko dauzkat  
zuentzat gorderik  
jolastorduak ere  
luza ditzaket nik.

**Hitza Joxean Ormazabal**  
**Musika: Jon Ander Larrañaga**

## **ERABILERAZ HOBETU**

Euskaraz mintza, euskara landu  
erabiliaz hobetu,  
zalantzaren bat ikusten baduzu  
dakienari galdetu.

Norbait ikusi ondorenean  
nola esaten duzu zuk?  
“ikusi zaitut” esan behar da  
eta ez “ikusi dizut”.

Norabait joan nahi duzunean  
ez esan holako hitzik:  
“balin det joan” ez dago ondo  
“joan al naiteke” baizik.

Zu baratzean baldin bazaude  
zure aitari begira:  
“Lanean dago” ez esan behintzat  
bBaizik “lanean ari da”.

**Hitza: Angel Mari Peñagarikano**

**Misika: Jon Ander Larrañaga**

## **EUSKARAZ KALEAN**

Danborra ta trompeta  
salto-brinko dantza  
hator gurekin lagun,  
ez izan zalantza.  
danborra ta trompeta  
salto-brinko dantza  
euskararen alde  
jar zak balantza.

Lagunekin hizketan  
autobusari zain  
edo otartekoa  
janaz lasai-lasai  
zinemarako txandan  
solfeon ere bai  
euskaraz jardutea  
besterik ez da nahi.

Piscina, frontoi edo  
nabilen parkean  
txirrindan, lasterketan  
eta futbolean  
anai ta arrebeekin  
lagunen taldean  
ibili edo egon  
euskara kalean.

**Hitzak: Andoni Egaña**

**Musika: Jon Ander Larrañaga**

## **AITZAKIARIK EZ**

Haizeak nondik diren etortzen  
jendeak hara du begiratzen  
baina haizeek zer jotzen duten  
sarritan ez da garbi ikusten.

Dena aurrera doan garaian  
guk atzekoa aurrera nahian  
azalak ez du ezer balio  
mamiak laguntzen ez badio.

Aitzakiarik ez, atera lagun,  
edozein gauza izan zaitezke,  
baina lehenbizi izan euskaldun.

Euskaraz mintzatzearen lotsa  
oker luzea ideia motza  
erdibideak bukatu dira  
baztertu edo aurrera tira.

Aspaldiko kontu haiekin  
hitz egin nahi ez, nahiz eta jakin  
oraindik itsu gaude edo zer  
txorakeriatan ez dago ezer.

**Hitza: Jon maiatza**

**Misika: Jon ander Larrañaga**

## **JOLASEAN**

Maitatzen dugu jolasa  
lana ondoko arnasa.  
nahiz berehala pasa  
jolasean gabiltzanez  
sortzen dugu saltsa.  
neska-mutilok eman ba  
euskarari kantxa.

Pilota eta futbola  
edo gustuko kirola.  
pilpilean da odola  
hala ere ez gara ez  
nekatzen inola  
irabazi edo galdu  
guri ez axola.

Korrika, soka saltoan  
hizketan han txokoan.  
Hitz jarioa mokoan  
gauza asko kontatzeko  
elkartutakoan  
ez ahaztu daukagula  
euskara jokoan.

**Hitza: Juan Mari Amenabarro**  
**Musika: Jon Ander Larrañaga**

## **AMETS BIZI BAT**

Ametsak amets ditugu baina  
ez lokartu gure hitza,  
amets bizi bat gerta dakigun  
eguneroko bizitza.

Gaueko loak pozik narama  
hegaka zero aldera,  
zatoz gurekin – esan didate  
izar guztiek batera.

Bide erdian irribarrezka  
topatu dut ilargia,  
bidea oso ilun dago-ta  
hartzazu nire argia.

Beranduago eguzki printzak  
dizdiratsu bezain jator  
esan didate –zabal begiak,  
egun berri bat dator.

Esnatu eta konturatu naiz  
hainbeste bira emanik  
gure hizkuntzak gauetan ere  
baduela zer esanik.

**Hitzak: Mikel Mewndizabal**

**Musika: Jon Ander Larrañaga**

## **ERLEAREN EZTENA**

Euskaldun hutsa zara zu  
eta indarra daukazu  
ez duzu nahiko ordea  
ni erdaldun izatea.

Erleak badu eztena  
gutxi erabiltzen dena.  
Kontuz ibili txikito  
nire hizkuntza ez ito.

Esan dizut sano-sano  
ez naizela kastillano  
Nik onartzen dut zurea  
zuk onar ezazu nirea.

Erleak beldurrik ez du  
eztia nahi du babestu  
Kontuz ibili erdara  
gero eta gehiago gara.

Gauzak daude gure esku  
aurre egiteko prestu  
eta horregatik gaude  
maite dugunaren alde.

**Hitza: Jon Sarasua**

**Musiak: Jon Ander Larrañaga**

## **GEROA DUGU ESKUTAN**

Geroa dugu ta eskutan  
ez soltatu nahiz egon sutan  
ez zaitezela egon lotan.  
geroa dugu ta eskutan  
euskara bizi denon ahotan.

Euskaldunon egin beharra  
betekizuna da ederra  
piztu euskararen indarra  
euskaldunon egin beharra  
zabaldu euskararen garra.

Pausoak ematen hasi  
barruko kateak hautsi  
edonola hizkuntzari eutsi  
pausoak ematen hasi  
aurrera neska-mutilok ez etsi.

**Hitza: Juan Mari amenabarro**  
**Musika: Jon Ander Larrañaga**